

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Garrantzitsuen aplikazioa ongi egitea izango litzateke. Hasieran, publizitatea jarri beharko dugu gure sorkuntza ezagutarazteko; hori sare sozialen bitartez egingo dugu. Baina, ez da bide bakarra izango, ahoz aho ere zabalduko da.

“Enpresaren” sorkuntzan ere garrantzitsua izango da taberna, kafetegi, supermerkatu eta beste zenbait dendekin harremanetan jartzea eta hauei gure proiektua aurkeztea; ahal denean aurrez aurre eta bestela deitu edo korreo elektronikora idatzi diezaiokegu. Ondoren, erlazio hau korreo elektronikoz mantenduko genuke (kasuaren batean ezingo balitz momentuan ikusiko genuke konponbidea) deskontu kupoiekin joan zaizkien jendearen datuak eman eta guk hauei ordaintzeko.

Iragarkiak ezarri nahi dituztenak, aldiz, beraiek jarri beharko dute gurekin harremanetan erosoan egiten zaien moduan (telefonoz, sare sozialen bitartez, korreo elektronikoz edo presentzialki –inguruko enpresa bada–); guk gure korrontea emango diegu ordainketak egiteko.

